

# erdiko kaiera

Antzerkia

**Babiloniako loreak**

## Oholtzatik haragoko kantua

Bost urteko prozesuaren ostean bueltan da Antzerkiola Imaginarioa formatu handiko bosgarren lanarekin. *Babiloniako loreak* du izenburu Ander Lipusen senari jarraiki Jon Gerediagak idatzi eta Antzerkiola Imaginarioak talde sormenaren bidez egindako lanak.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Ainhua Resano

URRIAREN 9AN Zornotza aretoan *Babiloniako loreak* sortzeko bost urteko prozesua oholtzako kantu bilakatuko da, azken hilabeteetan estreinatuko den aretoan bertan eta Luhusoko Harri Xuria gunean lanean buru-belarri ibili ostean. Bost urteko prozesua izan da zeinean ideia garatu, landu eta osatzeaz gain Antzerkiola Imaginarioak talde egiturari dagokionez aldaketak ezagutu dituen: utopiaren bidean nolabait bizitzetik krisialdira pasa da eta hortik berriz loratze une batera. Antzezlan berri hau, nolana ere, ez da itzulera, ez direlako inoiz joan. *Babiloniako loreak*ekin urratsak eman bitartean bakoitzak bere aldetik jarraitu du lanean, eta zirrikitua zabalik laga dute, sormenarena batzuetan gehiegi atzeratzen den udaberria dela jakinik.

“Nire amona tristeziak hil da”, kontudentziaz laburtzen du Ander Lipusek *Babiloniako loreak* lan berriaren hatsa. Kontudentziaz eta grina islatzen ohi duen ukabila bihotz bilakaturik. *Babiloniako loreak* bezala Ander Lipusek zuzendu zuen Antzerkiola Imaginarioaren aurreko lana, *Au revoir triunfadoreak!*, baina oholtzara igo gabe. Hasteko eta behin bazuen aktore gisa berriz ere lan egiteko gogoia: “Uste dut aktore edo komediante batek bere bizitzan bospasei pertsonaia egin ahal dituela ederrak, ez gehiago. Japoniako No teatroan adibidez sailkatuak daude pertsonaia horiek. Niri iruditu zitzaidan Yuri Sam bezalako pertsonaia indartsu bat eta gero oso une



## Antzerkiolaren itzulera

Orain bost urte Antzerkiola Imaginarioa taldeak krisian zegoela zabaldu zuen, eta bere proiektu gehienak izoztuak gelditu ziren: formatu handi zein txikiko ekoizpenak, Ritos ekimen antropologikoa, ikerketa eta formazioa xede zuten teatro egonaldiak... Izan zuten oihartzunik krisiaren harira taldekideek egindako gogoetek, etsipen puntu batekin agian: bizi dugun egoera kulturalan zirrikitu propio batean lan egiten saiatu ziren, merkatuarekin elkar bizi arren ibilbide propioa osatuz... eta utopia iraultzarik gabeko gorritasunean amildu ziren.

Lipusek dioenez, hamar urte pasa eta gero orain etapa berri bati ekin diote. "Argi eta garbi daukat hori, batez ere barne estrukturarari dagokionez. Hasieran ni hasi nintzen, gero elkarte izan ginen, gero kooperatiba sortu genuen eta bagenituen gure utopia piratak eta abar, hori ere erori zen arte". Antzerkiola Imaginarioa hastapenetik enpresa hutsa baino zer edo zer gehiago izan delako itzuli dira agian. "Kostatu zitzaigun, baina errealitate hori onartzen denean beste lasaitasun eta bizipoz batekin egiten duzu lan. Diru asko gastatu dugu obra honekin eta hori ezin da urtero egin, horrek ez dauka luzez irauterik. Egon zen garai bat, zeinean bukatu genuen talde profesionalak bezala urtero-urtero boloak eta subentzioak bilatzen... Orain

espero dugu gurea den obra bat egitea eta iristea iristen den lekura, eta kito. Ez daukagu inongo pretentsiorik eta gure herriko kulturgintzaren eta teatroaren egoeraren erretratu zintzo bat ematen dugula uste dut. Ekoizpenak egingo ditugu talde moduan, baina ez dago lekurik antzerki talde guztiak subentzionaletzeko, fartsa bat iruditzen zait honek guztiak nola funtzionatzat duen". Lasaitasun horren adibide izan liteke halaber hizkuntza aldetik *Babiloniako loreak* lanarekin egin duten hautua: pertsonaia bakoitzak errealitatean egingo lukeen moduan hitz egiten du: Inesek Markinako euskaraz, Nikosiak erdaraz... "Jende batzuek edo programatzaile batzuek esango dute ez dela euskaraz, kanpora joan eta ez dela gazteleraz esango dute besteek... Antzezlanean kalean bizi dugun errealitatearekin jokatu dut, eta uste dut obran naturaltasun osoz ematen dela hizkuntzen arteko joko hori". Barneko ahotsaren beharrei erantzuten dieten lanak dira Antzerkiolarenak, artisautzakoak esan lezake inork, eta Lipusek berak ikusten du aldea aktore gisa egin ohi dituen beste proiektuekin. "Saiatzen gara koherenteak izaten bizi dugun momentuarekin. Beti sentitu dut Antzerkiolarekin egiten ditugun lanak nolabait sakratuak direla, oso pertsonalak, barrukoak eta sinzeroak".

egokia eta interesgarria zela amona bat egiteko, barruko ikerketa eta superazio moduan". Lanean hasteko orduan gertura begiratu eta bere amonarekin egin zuen topo ezinbestean. "Madriren nengoela nire amona ohean sartu zen eta sei urte egin zituen hor hil arte. Diagnostikoan medikuek ez zekiten zer jarri, baina nik amari askotan esan nion amama tristeziak hil zela. Hori da *Babiloniako loreak*en kontakten dena, ez gehiago eta ez gutxiago".

Antzerkiolaren ibilbidean funtsezkoa izan da Lipus eta Jon Gerediaga idazlearen arteko harreman berezia, talde lanean ostera garatuko diren proposamenei hastapeneko hitzaren forma ematean. Kasu honetan ere bat egin zuten bien bulkadek. Lipusek amonaren irudia eman zion Gerediagari, eta hark *Jainkoa harrapatzeko tranpa* bere bigarren liburuan suma daitekeen giroan murgildu zuen. "Jonek lan berri hau egiteko prest zegoela esan zidan, baina aldarte berri bat eraiki behar genuela nabarmenduz: *Au revoir triunfadoreak!*-en desenkontuarekin bukatu eta gero oraingoan mirari bat beharko genuen". Une horretan hartu zuen protagonismo berezia *Beste kantu bat nabiz eta Anschwitz* poemak. Gerediagaren beraren hitzak hartuta "Theodor Adornok esan zuen ezin zela poesiarik idatzi Auschwitz ostean. Agian egia izango da. Akaso labe makabro haien biktimentzat soilik izan liteke zilegi poesia idaztea. Hildakoei soilik hitz egin dezakete hildakoez. Gu ez

ginen Auschwitz izan". Agian horregatik antzezlan honetan, kontaktuen duenaren xumetasunean osoki, bi munduk egiten dute talka: desagertzearen dena batetik, eta hari so gogoeta egiten duena bestetik. "Posible da gaur egun poesia idaztea. Zilegi da. Gu ere gure biktimak garelako. Gure handinahikeriaren, gure amets utopikoen biktimak". Rilkeren *Orfeoren sonetoak* lana gogoan hartuta kantuaren bidez etor liteke salbazioa. Lipusen ustez "ideia hori amonaren irudiari lotzean konturatu nintzen has gintezkeela dramaturgia bat eraikitzen".

**Ander Lipusen amonaren heriotza izan zen obraren abiapuntua. Lipusek amonaren irudia eman zion Jon Gerediagari. Honek, berak idatzitako *Jainkoa harrapatzeko tranpa* liburuko giroan murgildu zuen**

### Arketipoak

Hegoa izeneko pertsonaia kontzertua eman behar du. Kontzertua baino lehen, bere amama Inesi azken agurra eman behar izan dio. Nahitaez, amamaren azken egunak etortzen zaizkio burura eta ikusleari berak imajinatzen eta oroitzen duena kontaktatzen dio. Amorruez, pozez, tristeziak, maitasunez... eta guztia kantu bihurtzen du.

Miren Gaztañagak jokatu du Hegoaren rola eta Lipusek Inesena, baina ez dira bakarrik egongo. Lipusek dioenez "pertsonaiekin gure herriko hainbat errealitate, izaki edo ikuspegi abiapuntutzat hartu, arketipo bihurtu eta errealitate sinboliko batera eraman ditugu". Kontaktatzen diren egoerak eta pertsonaia errealak dira beraz, baina muturrera jo dute haiekin. "Hegoak mikroarekin hitz egiten du eta horrek puntu garaikidea ema-

ten dio. Besteak dira teatroaren munduan daudenak, fantas-  
mak, bere txotxongiloak izango  
balira bezala”. Teatro kostun-  
bristan agertzen diren pertso-  
naiak izan litezke adibidez  
medikua, apaiza eta politikaria.  
Alex Gerediagak jotzen ditu  
hiru arketipo horiek, bakoitzaren  
itzala aurpegi berarekin  
luzatuz. Mirian K. Martxantek  
herriko enterradorea eta amaie-  
ran gakoa izango den zamal-  
tzain beltzaren rolak jotzen  
ditu. Espe Lopezen esku dago  
Nikosiaren rola, Ines zaintzen  
duen mirabe erdaldunarena.

Izatez pertsonaia ez den  
arren, amonaren gelak ere pro-  
tagonismo berezia izango du,  
eta harekin bere oheak. Lipu-  
sek oroitzen du bere amona  
hiltzean haren gelak inpresio-  
natu zuela gehien: “Lur eman  
eta gero sarritan joaten nintzen  
hara, zirrara, hotzikara, melan-  
kolia, barregura... denetarik  
ematen zidan. Inpresionatzen  
ninduen nire amonak ez zuela  
deus utzi: gurutzea eta argazki  
batzuk, armairua haren arrop-  
ekin eta kanfor usaina. Ni orain  
joaten banaiz uzten ditut orde-  
nagailua, altzariak, telebista,  
kotxea, antzerki taldea...  
Horretan datza obraren kon-  
fliktorik handiena eta gauzarik  
ederrena niretzat, eta horrela  
sortu zen Hegoa pertsonaia”.

Lipusek aipatzen duenez  
*Babiloniako Loreak* nolabaiteko  
anti-pastorala litzateke. “Pasto-  
raletan beti sekulako heroien  
bizitzak kontatzen dira, bi mila  
jende joaten da ikustera eta ger-  
takari handia da. Antzerki obra  
hau ikustera agian ez da jende  
asko joango, baina nire amon-  
aren ehorzketara ere ez zen  
jende asko joan. Niretzat orain  
oso inportantea da alde xume  
hori kontatzea, gure mundu  
imaginarioa eta gure txikitasun  
hori transmititzea, baina poeti-  
ka izugarri batekin”.

### Talde sorkuntza

Lerro hauetan aktoreen izenak  
aletu ditugun arren, luzea da arlo  
teknikoetara beren sormena



# 2009

## BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

[www.txapelketanagusia.eu](http://www.txapelketanagusia.eu)

**Urriak 10, larunbata 17:30ean**  
**Udal kiroldegia - LEITZA**



ÍÑIGO OLAETXEA AINHOA AGIRREAZALDEGI I. MANZISIDOR "MANTXI"  
IBON AJURIA XABIER SUKIA ETXAHUN LEKUE

**Urriak 11, igandea 17:30ean**  
**Arriaga antzokia - BILBO**



ASIER OTAMENDI AMAIA AGIRRE JULIO SOTO  
MADDALEN ARZALLUS ÍÑAKI ZELAIA JEXUX MARI IRAZU

Laguntzailea:





txertatu duen jendearen zerrenda. Lipusek aitortzen duenez dena da hartu-eman: “Beti egin behar da esfortzu bat, horregatik da Antzerkiola Imaginarioaren dramaturgia bat, ez da nirea, denok sufritzen dugu pila bat prozesuan gauzak utzi behar ditugulako. Eszenografia iristen zaizu eta aurretik zeneukan ideia apurtzen da. Taldekideen arteko elkarriketa da dena, eta nik uste dut sorkuntzaren mailarik ederrenak hor hartzen direla, baina era berean norbera bere ofizioarekin kontent geldituta”. Lipus beraren lanean badu itzalik funts horrek, izan ere, aktore eta era berean zuzendari izanik ezin baitu leku denetan egon. *Babiloniako loreak*en prozesuan Urko Redondo eta Aina-ra Gurrutxagak bete dute zuzendari laguntzailearen lana. “Pazientzia handia dute, eta sekulako errespetua gure lanarekiko. Hori asko da, oso zaila da elkar ulertzen duzun jendearekin topo egitea. Nik laguntza hori behar nuen. *Yuri Sam* ere nik zuzendu nuen eta ez neukan laguntzarik, baina errazagoa egiten zitzaidan hiru ginelako taula gainean, eta hasiera batean bakarrizketa bezala zegoelako irudikatua. Oraingo honetan konplikatua iruditzen zitzaidan, aktore gehiago garelako”. Lipusek zuzendariaren kanpoko begirada aktore lanekin tartekatzen du, Gurrutxaga eta Redondoren laguntzarekin, batzuetan haiei eskatuz bere rola betetzeko. Horren ondorioz bizi-biziak izango dira estreinaldiaren aurreko egunak, amonaren rola guztiz osatze aldera. “Azken egunak aktoreak zuzentzen eman ditut, eta orain nik ez dudan interpretazio maila batean daude”.

Azken txangoan Lipusek urteotan barneratu duen material humano eta fisikoa azaleratu beharko du, egokitze fisikoaz gain barne bidaia itzela dakarrena. “Denbora asko eman dut etxeko pasilloan nire amonarekin ibiltzen; hoge mila erritua txiki egin ditut, beraren objektuak, beraren argazkiak, beraren arropa daukat hor, askotan jantzi dut. Baina transformazio erradikalena azken unean emango dut.

**Nolabaiteko anti-pastorala da *Babiloniako loreak* Ander Lipusen esanetan:** “Pastoraletan beti sekulako heroien bizitzak kontatzen dira, bi mila jende joaten da ikustera eta gertakari handia da. Antzerki obra hau ikustera agian ez da jende asko joango, baina nire amonaren ehorzketara ere ez zen jende asko joan. Niretzat orain oso inportantea da alde xume hori kontatzea, gure mundu imaginarioa eta gure txikitasun hori transmititzea”.



Uda osoa pasa dut mundu femenino horretan sartzen. Nire kezkarik handiena da jendeak ahots femenino bat entzutea”.

### **Opari bat**

Lerro hauek ezin dute eskaini esperientziak eta ikerketaz beteriko sormen prozesu horren isla bat baino. Dena dela, bada poesia kargaturiko abentura honetan funtsezkoa den hitz bat: Lipusek sarritan aipatzen duen “oparia”. “Uste dut oso inportantea dela gurea ofrenda lan bat izatea, horretan asko sinesten dut. Bertsolariekin nabiltzean adin guztietako jendea dator, eta nik egun txarra izanik ere oparitu egiten diet barre egitea. Saiatzen naiz ofrenda bat egiten, nire zentzu kritikoa inoiz ahaztu gabe. Azken batean gu pailazook, edo bufoiok, edo komedianteok, badakigu nola dagoen egoera, jende gutxiri iristen zaiola hori”. Jon Gerediagaren lana ere opari moduan definitzen du, *Babiloniako loreak* lanaren amaiera gogoan hartuta batez ere. Hemen ez dugu soberako pistarik emango, baina... “Poetaren hitza bat-batean opari bihurtzen da, batez ere bukaera poetikoarekin. Gure aurreko obra guztiak oso era itxian bukatu dira, eta oraingoan irekiera moduko bat dago”. Eta opari bat azkenik, gerra eta beste hainbeste gauza bizi izan dituztenei. “Nire amonari eta azken finean Euskal Herriko amona guztiei. Pentsatzearekin bakarrik hotzikara sortzen zait, sentitzen dut bera etorri eta bi muxu emango dizkidala...”. Eta oparia, funtsean, publikoarentzat ere. ■